

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**GETARIA 14**

Egilea eta data: Benito Olasagasti; 1890

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituen, gehi fatxada planoko jasodura bat (1913koa) eta bi jasodura mantsardatu (1946koak). Harlanduzko fatxada, hormigoizko begiratokia duena kantoiko alakan (1941ekoa, behe oineko kantoiko baoaren aldaketa bezalaxe). Bao bikoitzak ditu jatorriz behe oinean. Getaria kaleko fatxadaren erdialdeko baoa nabarmentzen da (atariko baoaren bertikalean), kuxin formako harlanduzko hormataletan mugatua. Jatorrizko proiektu komuna Getaria 12rekin eta San Martin 10ekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen direnak –behe oineko baoen, zehazki S. Martin kalerako baoen, konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.